



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Huraxe da Espiritu Santuaz bataiatzen duena”

2023ko urtarrilaren 15a
Urteko 2. igandea (A)

Joan 1, 29-34.

Biharamunean, Joaneke Jesus bereganatu eta esan zuen: “Hona hemen Jainkoaren Bildotsa, munduko bekatua kentzen duena. Honetaz ari nintzen, ‘Nire ondoren datorren gizona nire gainetik dago, ni baino lehenagokoa baitzen’ esan nuen. Neuk ere ez nuen ezagutzen; baina ni urez bataiatzera etorri banaiz, bera Israel herriari agerrarazteko izan da”.

Eta beste hau ere aitortu zuen Joaneke: “Espiritua ikusi dut, uso tankeran, zerutik jaisten eta honen gainean gelditzen. Neuk ere ez nuen ezagutzen, baina urez bataiatzera bidali ninduenak esan zidan: ‘Espiritua jaisten eta gizon baten gainean gelditzen ikusiko duzu; huraxe da Espiritu Santuaz bataiatzen duena’. Eta neuk ikusi dut eta aitortzen hauxe dela Jainkoaren Semea”.

Hona hemen munduko bekatua kentzen dauan Jainkoaren bildotsa. Jesusek Espirituaz bateatzen gaitu, bere bizia emonez, horrelaxe bihurtzen da bekatuaren aurkako.

ESPIRITUALITATE GOSEA

Jose Antonio Pagola

Lehen kristau-belaunaldiek ondo asko zekiten ezen «bataiatua izateak» urean murgiltzea esan nahi zuela hitzez hitz, bainatzea, garbitzea. Horregatik, oso ongi bereizten zituzten Jordan ibaiko urean Bataiatzaileak eskaintzen zuen «ur-bataioa» eta Jesusengandik hartzen zuten «Espiritu Santuaren bataioa».

Jesusen bataioa ez da urean murgilduz hartzen den gorputz-bainua, baizik barne-bainua da, zeinetan Espiritu Santuari blai egin gaitzan uzten baitiogu eta gugan barneratu dadin, jakinik hura gu baitan bizi-iturburu berri eta besterik ez bezalako bihurtzen dela.

Horregatik, bataiatu bakoitzarentzat Jesusen izenari dei eginez bataiatzen zuten lehen kristauak. Tartsoko Paulo dio ezen kristauak «**Kristogan**» direla bataiatuak; horregatik, «**Kristogan bizitzera**» deituak diren uste izan behar dutela, haren Espirituak arnastuak, eta Jainkoarekiko Kristoren esperientzia bera eta haren barne jarrera sakonenak baitaratuz bizi behar dutela.

Ez da zaila hautematea, gizarte modernoan, espiritualitate-gose sakona adierazten duten zeinuak. Bizitza beste era batean bizi ahal izateko barne indarra emango dien zerbaiten bila dabiltzen jende-kopurua haziz doa. Gaitz da inolako jomugarik ez dukeen bizitza bizi ahal izatea. Ez da aski ondo pasatzea ere. Jasanezineko bihurtzen da bizitza halako pragmatismora edo arinkeriarara mugatu nahi denean.

Beste batzuek barne bake- eta segurtasun-beharra sentitzen dute, barnean sortzen zaizkien ikara- eta ziurgabetasun-sentimenduei aurre egin ahal izateko. Badira barnean atsekabea dutenak: barne zaurituak, bizitzak gaizki hartuak, babesgabeak, barne sendatze-premia dutenak.

Geroz eta gehiago dira ez teknika, ez zientzia, ez ideologia erlijiosoak ez den zerbaiten bila dabiltzanak. Bizitzan beste era bateko sumatu nahi lukete beren burua. «Salbazio» antzeko zerbait esperimendu nahi lukete; harremanetan jarri beren barnean sumatzen duten Misterioarekin.

Oso kezkatzekoa da hainbat gurasok beren seme-alabak ez bataiatu nahi izatea. Baina are kezagarriagoa da jende asko gure Elizatik alde egiten ikustea, «**Espirituaren bataioaz**» sekula santa entzun ez dutelarik eta Jesus biziaren barne iturri bezala esperimendu gabe.

Oker handia da Elizaren barnean berean, sarritan, espiritualitate hau sustatzea: funts handirik eta garrantzi handirik ez balu bezala, Jesus bazter uzten duena. Ez. Jesusen jarraitzaileok ezin bizi dugu espiritualitate serio, argi eta erantzulerik haren Espirituak arnastua ez bada. Ezin diogu eskaini jendeari Jesusekin, geure Maisu eta Jaunarekin, barnez topo egiteko laguntza ematea baino gauza inportanteagorik.